# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**1567**

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 27koa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearena, merkataritzako zabalkunde eta informazio jarduerak egiteko laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia publiko egiten duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko maiatzaren 15eko Aginduak (2003ko maiatzaren 28ko 103. EHAA) merkataritzako zabalkunde eta informazio jardueretarako laguntzen programa arautzen du eta 2006ko maiatzaren 24ko Aginduak (2006ko ekainaren 13ko 111. EHAA) eta 2009ko otsailaren 26ko Aginduak aldatu dute.

Adierazitako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoari jarraiki, bidezkoa da bertan ezarritako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egitea. Horretarako, beharrezkoak diren arauak emango dira.

Azaldutakoa dela eta, adierazitako aginduaren 5. artikuluan ezarritako ahalmenari jarraiki, hauxe

EBATZI DUT:

***1. artikulua***.– Xedea.

Ebazpen honen xedea ondokoa da: merkataritzako zabalkunde eta informazio jardueretarako laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko maiatzaren 15eko Aginduan (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 24ko Aginduak eta 2009ko otsailaren 26ko Aginduak aldatua) aurreikusitako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egitea.

Horretarako 250.000 euro zuzenduko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 19/2008 Legeak 2009. urterako ezartzen duen aurrekontu-kredituaren arabera. Honelaxe banatuko dira:

– 2003ko maiatzaren 15eko Aginduaren 4.1.1 artikuluan adierazitako jardueretarako 100.000 euro zuzenduko dira.

– 2003ko maiatzaren 15eko Aginduaren 4.1.2 artikuluan adierazitako jardueretarako 150.000 euro zuzenduko dira.

Zenbateko hauek aldatu ahal izango dira –eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta–, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste lagun-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

**1567**

RESOLUCIÓN de 27 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas destinadas a la realización de actividades de divulgación e información comercial para el ejercicio 2009.

La Orden de 15 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, regula la concesión de ayudas destinadas a actividades divulgativas e información comercial (BOPV n.º 103 de 28 de mayo de 2003), y ha sido modificada por la Orden de 24 de mayo de 2006 (BOPV n.º 111 de 13 de junio de 2006) y de 26 de febrero de 2009.

De conformidad a lo establecido en el artículo 5 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 5 de la orden de referencia

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 15 de mayo de 2003, modificada por la de 24 de mayo de 2006 y la de 26 de febrero de 2009, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial.

Para este fin se destinará un total de 250.000 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 19/2008 de 29 de diciembre de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2009, que se distribuirá de la siguiente manera:

– Para las actividades a las que se refiere el artículo 4.1.1 de la Orden de 15 de mayo de 2003, se destinarán 100.000,00 euros.

– Para las actividades a las que se refiere el artículo 4.1.2 de la Orden de 15 de mayo de 2003, se destinarán 150.000,00 euros.

Estos importes podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no ago-

tza-programa batzuk gauzatzearen ondoriozko agortu gabeko aurrekontu baliabideen arabera eta ebazpenak eman aurretik. Zirkunstantzia horren berri emango da Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez.

***2. artikulua.***– Betekizunak.

Eskatzaileek, merkataritzako zabalkunde eta informazio jardueretarako laguntzen aginduan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko, aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

***3. artikulua.***– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabide-eredua Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoetan eskuratu ahal izango da, bai eta Interneteko ondoko helbidean ere: www.euskadi.net./comercio.

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza Zuzendaritzara bidali beharko dira eta Lurralde Historiko bakoitzean dagoen Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoan aurkeztuko dira edota, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako lekuetan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2009ko maiatzaren 4an amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena***.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 27a.

Merkataritza, Kontsumo eta
Industria Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

tadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

***Artículo 2***.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a diversas actividades de divulgación e información comercial, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de misma.

***Artículo 3.***– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet: www.euskadi.net./comercio.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán dirigirse a la Dirección de Comercio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en los previstos en Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de publicación de la presente Resolución y finalizará el día 4 de mayo de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente Resolución de convocatoria entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo
y Seguridad Industrial,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.